



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

IV. ERANSKINA : ELKARLANA

Urtea :2024 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Gaitasun lehiakorrak bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia (merkatuei erantzuteko ahalmena) lortzeko.

ENTITATE ONURADUNAK

Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatutako eta lankidetzeta edota laguntza formularen baitako enpresak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden ,aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7 oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak



DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute enpresetan eraldaketa proiektu hauek garatzeko jarduerak:

- Enpresen arteko lankidetzarako ereduak diseinatzea eta aplikatzea;
- Enpresen dimentsio berriak sortzea;
- Lankidetzan diharduten enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handituko duten lankidetzak proiektuak gauzatzea Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumenen barruan.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta IV.eranskina - 5.oinarri aldatua).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2024ko ekainaren 20an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2025eko ekainaren 30.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2025eko uztailaren 30a.**



ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2024ko oinarri arautzaileak eta deialdia: IV.ERANSKINA - Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzea (Oinarriak: 2021/06/15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartu zen - 2021/06/18ko GAO 114 zk. eta Diputatuen kontseiluaren 2022/05/10eko eta 2023/02/07ko akordioa baten bidez aldatu - 2022/05/20ko GAO 95 zk. eta 2023/02/16ko GAO 32 zk. 2024 deialdia: 2024/05/07ko Diputatuen erabakiz onartu zen - 2024/05/16ko GAO 94 zk).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/elkarlana>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112009

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus